

## XEDAPEN OROKORRAK

### GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

## 2718

*AGINDUA, 2018ko maiatzaren 15ekoa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren eta sail horri atxikitako IVAP-Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren datu pertsonalak dituzten fitxategiei buruzkoa.*

Euskarri fisikoan jasotako izaera pertsonaleko datuen tratamenduan eta sektore publikoak zein pribatuak datu horiei gerora ematen dieten erabilera modalitate orotan pertsona fisikoen ohorea eta intimitatea bermatzea eta babestea da Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren xedea.

2014ko abenduaren 30eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 2014ko azaroaren 28ko Agindua, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Administrazio eta Justizia Sailaren eta hari atxikitako IVAP-Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren datu pertsonalen fitxategi automatizatuei buruzkoa. Agindu hori bi aldiz aldatu zen: lehenengo aldian, 2015eko apirilaren 17ko aginduak aldatu zuen; eta bigarrenean, 2015eko uztailaren 2ko aginduak. Biak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ziren: 2015eko maiatzaren 4an eta 2015eko uztailaren 9an, hurrenez hurren.

2014ko martxoaren 17ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen Ogasun eta Finantzetako sailburuaren 2014ko otsailaren 28ko Agindua, Ogasun eta Finantzetako Sailaren eta Euskal Estatistika Erakundea eta Lehiaren Euskal Agintaritza erakunde autonomoen datu pertsonalen fitxategiei buruzkoa. Agindu hori 2015eko martxoaren 20ko Aginduak aldatu zuen. Agindu hori 2015eko apirilaren 8ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen.

Lehendakariak azaroaren 26ko 24/2016 Dekretua eman zuen, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko, eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko. Dekretu horren bidez, hain zuzen ere, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila eratu zen. Sail hori osatzen dute iraungitako Herri Administrazio eta Justizia Saileko organo eta unitate guztiek (Justizia Sailburuordetzak izan ezik) eta iraungitako Ogasun eta Finantza Saileko Administrazio eta Zerbitzu Orokoretako Sailburuordetzako organo eta unitate guztiek (Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak izan ezik). Hori horrela, Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritza eta Baliabide Orokoren Zuzendaritza, gaur egun, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailean daude. Dekretu horretan adierazi bezala, honako hauek atxikitzen zaizkio sail horri: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP) administrazioako erakunde autonomoa eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa.

Sailak berrantolatu izanak beste Agindu bat onartzea beharrezkoa egin du, hain zuzen, Sail honetako datu pertsonalak dituzten fitxategiak arautzen dituena eta iraungitako Herri Administrazio eta Justizia Saileko eta Ogasun eta Finantza Saileko organoen fitxategiak jasotzen dituena.

Halaber, fitxategi berriak sortzeko premia ikusi da, eta fitxategi horiek arautu egin behar dira. Izan ere, Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzari dagokio legezkotasunari buruzko txostenak eta legezko iritziak egitea. Txosten horiek esleitu, egin eta horren ondoren kudeatu beharrak, baita txosten horiei buruzko estatistikak egin eta ustiatu beharrak ere, fitxategi berri bat sortzeko premia eragin du, «Jardunaren eta txostenak egitearen kudeaketa» izena izango duena. Halaber, Zuzendaritza horretan, eta Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea

onartu izanaren ondorioz, beste bi fitxategi sortzeko beharra sortu da: bata, «Euskal Zuzenbide Zibileko Batzordearen lanen kudeaketa», eginkizun gisa Batzordeak betetzen dituen funtzioak kontrolatzea, koordinatzea eta administrazio-kudeatzea duena; eta bestea, «Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen Erregistro-liburua, Artxiboa eta funts dokumentala eta bibliografikoaren kudeaketa», honako helburu hauek dituen: batzordearen funts dokumentala eta bibliografikoa eta Artxiboa kontrolatzea eta kudeatzea, Batzordeari bidalitako agirien sarrerak eta hark bidalitako irteerak erregistratzea, liburutegietako maileguak kontrolatzea eta kudeatzea eta jarduera horiei buruzko ustiaketa estatistikoa egitea.

Era berean, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 33. artikulua Epaiaketan Ordezkatzeko eta Defendatzeko Gomendioen Erregistro Ofiziala sortu zuen, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren menpe. Dekretu horren 34. artikulua ezartzen du Epaiaketan Ordezkatzeko eta Defendatzeko Gomendioen Erregistro Ofizialean nahitaez inskribatuko direla «Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Administrazio Instituzionala osatzen duten erakundeek beren-beregi izendatutako abokatu elkargokideren edo prokuradoreen baten gomendio utzitako guztiak, honako hauetan xedatutakoarekin bat: Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko Legea, dekretu hau, eta gomendio horiek formalizatzeako kontratuak». Funtzio horiek bete dituzan, beharrezkoa da beste fitxategi bat sortzea, non jasoko diren kontratu horien datuak eta esandako 144/2017 Dekretuak aipatzen dituen agiriak. Fitxategi horrek «Epaiaketan Ordezkatzeko eta Defendatzeko Gomendioen Erregistro Ofiziala» izena izango du.

Halaber, mugikortasun-arazoak edo gaixotasun kronikoak dituzten senideak zaintzeko, 50 orduko baimenak ematen zaizkie langileei, eta baimenok kudeatzeko, fitxategi berria sortu behar da. Fitxategi hori «50 orduko baimenak» deituko da, eta datu pertsonalak jasoko ditu. Era berean, herritarrei artxibo-sisteman dauden dokumentuak kontsultatzeko eskubidea bermatu behar zaenez, honako fitxategi hau sortu behar da: «Artxibo-sistemaren OPAC-en erabiltzaile erregistratuen kudeaketa» deiturikoa, zehatz-mehatz.

Bestalde, datu pertsonalei buruzko indarreko araudia betetze aldera, fitxategia sortzeko xedapenean edo akordioan azaldu behar dira, besteak beste, honako zehaztasun hauek: fitxategien helburuaren eta aurreikusitako erabileren deskribapena, datuen jatorria eta datu horiek jasotzeko prozedura, fitxategiaren oinarriko egitura (fitxategi horretan jasotako datuen deskribapen zehatzaren bitartez) eta datuak antolatzeko erabiltako tratamendu-sistema. Halaber, maiatzaren 9ko 12/1989 Legea, Funtzio Estatistiko Publikoari buruzkoa, betetzeko, fitxategietako datuak estatistika-xedeetarako erabiltzeko aukera ere ezarri behar da fitxategien ezaugarrien artean.

Herri Administrazio eta Justizia Sailari dagozkion auditoria-txostenak 2016an egin ziren, hala agintzen baita Izaera Pertsonaleko Datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen Erregelamenduaren 96. eta 110. artikuluetan (15/1999 Lege Organikoa garatzeko Erregelamendua abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuz onartu zen, eta hemendik aurrera DBLEE deituko da). Txosten horiek aztertuta ondorioztatu da «Langileen Kudeaketa Bateratua» deituriko fitxategiko datuen lagapenak eguneratu behar direla.

Bestalde, administrazio-jardueraren bilakaera dela-eta, datuak tratatzeko behar berriak sortu dira, eta eragina izaten dute arautu behar diren fitxategietan; hartara, fitxategi batzuen ezaugarriak aldatu behar dira. Ildo horretatik, «KZguneen erabiltzaileak eta tutoreak» deituriko fitxategian tutoreen datu pertsonalak sartuta daude; Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzak kudeatzen du fitxategi hori. 1720/2007 Errege Dekretuz onartu zen Izaera Pertsonaleko Datuak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa garatzeko Erregelamenduaren 2. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira, erregelamendu hori ezin zaie aplikatu «pertsona juridikoen gaineko datuen tratamenduei, ezta pertsona juridikoei zerbitzu egiten dieten pertsona fisikoen gaineko datuak dituzten fitxategiei ere». Horregatik guztiagatik, tutoreen datuak ez dira sartu bere garaian ezarri zen fitxategian.

Horrekin batera, genero-berdintasunari buruzko irizpideak ere bete behar dira, eta, horretarako, fitxategiaren izena gaztelaniaz aldatu behar da, baita kolektiboaren izena ere (datuak lotuta dituen kolektiboarena). Hortaz, aurrerantzean fitxategiaren gaztelaniazko izena hauxe izango da: «Personas usuarias de KZgunea» («KZguneen erabiltzaileak»).

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak 2017ko martxoaren 9an emandako Agindua –Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak prestakuntza-jarduerak homologa ditzan bete beharreko eskakizunak eta prozedura arautzekoa– dela eta, beharrezkoa da honako fitxategi hau aldatzea: «Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak antolatutako prestakuntza eta hobekuntzako ikastaroak». Gainera, IVAPek ere fitxategi hori aldatzea eskatu du, datu-lagapenei buruzko atalean praktikak zer administrazio edo erakunde publikotan egiten diren bertan jasotzeko. Horrez gain, IVAPek eskatu du ikastaroak egiteko beka edo diru-laguntza bat emateko datuak ere fitxategi horretan sartzeko (adibidez, ikasketa-espeditentea, ekonomia-egoera eta errenta-aitorpena). Horrenbestez, honako alderdi hauek aldatu beharko dira: fitxategiaren izena, beraren oinarritzko egitura, xedea eta ezarritako erabilerak, datuen iturri diren pertsonak edo kolektiboak eta datuen lagapen aurreikusiak.

Bestalde, IVAPek beste lerro bat kudeatuko du hautaketa-prozesuetan, tokiko erakundeetako postu espezifikoko batzuk betetzeko. Horretarako, «hautaketa-prozesuak» deituriko fitxategiaren xedea eta erabilera handitu behar dira, deialdia eta kudeaketa egiteko behar diren datuen tratamendua bertan jasotzeko. Horrez gain, fitxategi horretako datuak lagatzeari buruzko atala ere aldatu, eta bertan jaso behar da Funtzio Publikoko Zuzendaritzari egiten zaion datu-lagapen hau: Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko lanpostu bat betetzeko deitzen diren pertsonen datuei buruzko datuen lagapena.

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak 2008ko maiatzaren 14an emandako 319/2008 Epaiak Zuzenbidearen kontraktatzat jo zituen Ogasun eta Herri Administrazioak 2006ko maiatzaren 30ean emandako Aginduaren 18., 21., 22. eta 23. artikulua –baita hirugarren xedapen gehigarria ere–, jokabide-elkarriketa egituratuari buruz ezarritakoari dagokionez. Agindu horrek ezartzen du zer prozedura aplikatu behar den Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoek eskainitako lanpostuak zerbitzu-eginkizunetan betetzeko. Hori dela eta, ez da beharrezkoa «Jokabide-elkarriketa egituratuak» fitxategia, eta ezabatu egin behar da.

Izaera Pertsonaleko Datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 9. artikuluan ezartzen du fitxategiaren arduradunak datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko eta baimenik gabe datu horiek aldatzea, galtzea, tratatzea edo horietan sartzea saihesteko beharrezko neurri teknikoak eta antolaketa-neurriak hartu behar dituela.

Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 4. artikulua –Izaera Pertsonaleko Datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 20.1 artikuluan xedatuarekin bat etorrira– xedatzen duenez, autonomia-erkidegoko administrazioetako fitxategiak sortzeko, aldatzeko eta ezabatzeko, dena delako fitxategia atxikita dagoen saileko titularrak agindua eman behar du. Indarrean dauden legeek eskatutako aipamen guztiak jaso beharko ditu agindu horrek, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

Bestalde, 2/2004 Legea garatzen duen urriaren 18ko 308/2005 Dekretuak 2. artikuluan ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinarazi beharko diote datu pertsonalen fitxategiak sortu, aldatu edo deuseztatu izana, gora-behera horiek Datuak Babesteko Erregistroan inskriba daitezzen.

Agindu honek xede hauek ditu: segurtasun juridikoa areagotzea, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) eta kide anitzeko organo aholku-emaila gorena den Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren datu pertsonalen fitxategiei buruzko arauen dispertsioa ezabatuta; gai horri buruzko egungo legeria gure autonomia-erkidegoko Administrazio Orokorreko sailen egituraren aldatzeak egokitzea –aldaketa hori egin zuten: batetik, Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak); eta, bestetik, apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuak (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak)–; eta, azkenik, fitxategiak aldatzea eta eguneratzea, datuak babesteari buruzko indarreko araudia betetzen dela bermatzeko.

Hori dela eta, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

##### 1. artikulua.– Xedea.

Haxe da agindu honen xedea: Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak eta hari atxikitako herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak kudeatzen dituzten datu pertsonalen fitxategiak arautzea. «Datu pertsonalak dituzten fitxategien zerrenda» deituriko I. eranskinean jasota dago fitxategien edukia.

##### 2. artikulua.– Fitxategiak sortzea.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren datu pertsonalak dituzten fitxategiak sortzen dira, eta II. eranskinean («Datu pertsonalak dituzten fitxategiak sortzea») zerrendatuta daude. I. eranskinean zerrendatuta daude fitxategiak eta haien eduki osoa.

##### 3. artikulua.– Fitxategiak aldatzea.

1.– Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) datu pertsonalak dituzten fitxategiak aldatu dira, III. eranskinean («Datu pertsonalak dituzten fitxategiak aldatzea») zerrendatu diren alderdietan.

2.– Aldatutako fitxategiak eta fitxategien eduki osoa I. eranskinean zerrendatuta daude.

##### 4. artikulua.– Fitxategiak ezabatzea.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren datu pertsonalak dituen «Jokabide-elkarrizketa egituratuak» deituriko fitxategia ezabatu da. Bertan jasotako datuak agindu hau indarrean jartzean ezereztuko dira.

##### 5. artikulua.– Datuen lagapena.

1.– Fitxategi bakoitzari lotuta, Agindu honen I. eranskinean («Datu pertsonalak dituzten fitxategien zerrenda») bildu diren datuen lagapenak gorabehera, fitxategi horietan jasotako datuak laga egin ahalko dira, Administrazio Publikoaren esparruan, baldin eta araubide juridikoak agindutako eginkizun batzuk betetzeko beharrezkoa bada eskumen berberak edo arlo berdinei dagozkien eskumenak baliatzea. Datuen lagapen horiek, betiere, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin bat egin beharko dira.

2.– Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko eta beste administrazio publiko batzuetako organo eta estatistika-zerbitzuei laga ahal izango zaizkie, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legean eta Estatistikako Funtzio Publikoaren maiatzaren 9ko 12/1989 Legean Estatistikako Funtzio Publikoarena xedatutakoarekin bat.

3.– Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11.2 artikuluari jarraikiz, Arartekoari, Fisikaltzari, epaile eta auzitegiei edota Kontu Auzitegiari laga ahal izango zaizkie goian aipatutako datuak, esleituta dauzkaten eginkizunak gauza ditzaten.

6. artikulua.– Segurtasun- eta kudeaketa-neurriak.

Fitxategien ardura duten organoetako titularrek fitxategi horiek erabiltzeko aukera bermatzeko behar diren neurriak hartuko dituzte, fitxategiok zertarako sortu zituzten eta datu pertsonalen segurtasuna kontuan izanda, betiere haiek aldatzea, galtzea edo baimenik gabe tratatu eta baliatzea saihesteko moduan; abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hura garatzen duten arauetan aintzat harturiko bermeak, betebeharrak eta eskubideak gauzatzeko beharrezkoak diren neurriak ere hartu beharko dituzte.

7. artikulua.– Datu-tratamenduko zerbitzuak ematea.

Zerbitzu-emaile batek, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren kontura, erakunde horiek kudeatzen dituzten datu pertsonalak tratatu behar baldin baditu, fitxategiaren arduradunak zintzoki bete beharko ditu ezarritako jarraibideak. Baldintza hori kontratuan jaso beharko da, eta datuak ezin izango dira beste xede baterako erabili, beste pertsona batzuei jakinarazi, ezta datuok gordetzeko ere; izan ere, hala agintzen du 15/1999ko Lege Organikoaren 12. artikulua.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Agindu hau indarrean jarri bezain laster, indargabetuta egongo dira aginduan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak. Eta, honako hauek bereziki indargabetuko dira: 2014ko azaroaren 28ko Agindua, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Administrazio eta Justizia Sailaren eta hari atxikitako IVAP–Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren datu pertsonalen fitxategi automatizatuiei buruzkoa (2014ko abenduaren 30eko EHAA n argitaratua); 2014ko otsailaren 28ko Agindua, Ogasun eta Finantzetako sailburuarena, Ogasun eta Finantzetako Sailaren eta Euskal Estatistika Erakunde eta Lehiaren Euskal Agintaritzaren erakunde autonomoen datu pertsonalen fitxategiei buruzkoa. Azkenari dagokionez, gaur egun Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren esku-menaren mende dauden jardun-arloetako fitxategietan baino ez da eraginik izango.

## AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Zerbitzu Zuzendaritzak Datuak Babesteko Euskal Bulegoko erregistroari jakinaraziko dio zein fitxategi sortu, aldatu edo ezabatu den, eta fitxategiak erregistroan inskribatzeko eskaera egingo dio.

## AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 15a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu sailburua,  
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.

I. ERANSKINA, GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILAREN ETA SAIL HORRI ATXIKITAKO IVAP-HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN ETA EUSKADIKO AHOLKU BATZORDE JURIDIKOAREN DATU PERTSONALAK DITUZTEN FITXATEGIEI BURUZKO GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURUAREN AGINDUARENA

«DATU PERTSONALEN FITXATEGIEN ZERRENDA»

A) Gobernantza Publiko eta Autogobernu sailaren datu pertsonalen fitxategiak.

1.– Zerbitzu Zuzendaritza.

1.1.– Saileko langileen kudeaketa.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari atxikitako langileei buruzko informazioa ateratzea eta kontsultatzea.

b) Datuen iturri diren pertsonak edo kolektiboak.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari atxikitako langileak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura.

Jatorria: interesduna bera.

Biltzeko prozedura: inprimakiak.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta izaera pertsonaleko datu moten deskripzioa.

– Identifikazio-datuak (ID): izen-abizenak, Gizarte Segurantzako kide-zenbakia eta NAN/IFZ.

– Enpleguari buruzko xehetasunak (EX).

e) Hirugarren herrialdeentzako datu-lagapenak eta –transferentziak.

Ez dira antzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Zerbitzu Zuzendaritza.

g) Datuak eskuratzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko esku-bideak baliatzeko zerbitzua.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila.

Zerbitzu Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila.

Oinarritzkoa.

i) Tratamendu-sistemak:

Partez automatizatua.

1.2.– Estatistikaren zabalkundea.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Pertsoneri eta erakundeei zabalduko argitalpenen kudeaketa eta kontrola. Beste estatistika-erabilera batzuk.

b) Datuen iturri izan daitezkeen pertsonak edo kolektiboak.

Informazio estatistikoaren erabiltzaileak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura.

Jatorria: interesdunak, irispide publikoko iturriak (profesionalen zerrendak).

Jasotzeko prozedura: lanbide-banaketen zerrendak, Internet.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta izaera pertsonaleko datu moten deskripzioa.

Kontsultatzen den gaiaren arabera, honako hauek ager daitezke espedientean:

– Identifikazio-datuak: izen-abizenak, helbidea (posta-helbidea, helbide elektronikoa), telefonoa eta NAN/IFZ.

– Enpleguari buruzko xehetasunak.

e) Datuen lagapenak eta komunikazioak.

Ez dira antzeman.

f) Organo arduraduna.

Zerbitzu Zuzendaritza.

g) Datuak eskuratzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko eta datuen aurka egiteko esku-bideak baliatzeko zerbitzua.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila.

Zerbitzu Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Fitxategiaren segurtasun-maila.

Oinarritzkoa.

i) Tratamendu-sistemak:

Partez automatizatua.

2.– Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritza.

2.1.– Sinaduren erregistroa.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Euskal administrazio publikoetako agintarien sinaduren erregistroa, atzerrian eragina izan behar duten agiriei lotuta, eta estatistika-erabilerak.

b) Datuen iturri diren pertsonak edo kolektiboak.

EAEko administrazio publikoetako agintariak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura.

Jatorria: interesduna edo beraren legezko ordezkaria.

Biltzeko prozedura: inprimakiak.

d) Fitxategiaren oinarritzako egitura eta izaera pertsonaleko datu moten deskripzioa.

– Identifikazio-datuak (ID): izena eta abizenak, helbidea.

– Enpleguari eta administrazio-karrerari buruzko xehetasunak.

e) Hirugarren herrialdeentzako datu-lagapenak eta –transferentziak.

Lagapenik gabe.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritza.

g) Datuak eskuratzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko esku-bideak baliatzeko zerbitzua.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila.

Oinarrizkoa.

i) Tratamendu-sistemak:

Partez automatizatua.

2.2.– EHAAREN fakturazioa.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren kudeaketa ekonomikoa eta administratiboa, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren zerbitzu-eskaeren mekanizazioa eta kontrola, eta estatistika-erabilerak.

b) Datuen iturri diren pertsonak edo kolektiboak.

Euskal Herriko Agintaritza Aldizkariaren zerbitzuak eskatzen dituzten pertsona edo erakundeak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura.



Jatorria: interesduna edo beraren legezko ordezkaria.

Biltzeko prozedura: adierazpenak edo inprimakiak.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta izaera pertsonaleko datu moten deskripzioa.

– Identifikazio-datuak: izen-abizenak, helbidea (postakoa, elektronikoa), telefono-zenbakia, NAN/IFZ.

e) Hirugarren herrialdeentzako datu-lagapenak eta transferentziak.

Nazionalak.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritza.

g) Datuak eskuratzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko esku-bideak baliatzeko zerbitzua.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila.

Oinarritzkoa.

i) Tratamendu-sistemak:

Partez automatizatua.

2.3.– Informazioaren hedapen selektiboa.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Euskal Herriko Agintaritza Aldizkariaren informazioaren hedapen selektiboaren harpidetza egi-tea posta-zenbaki baten bidez, eta estatistika-erabilerak.

b) Datuen iturri diren pertsonak edo kolektiboak.

Pertsona fisiko edota juridikoak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura.

Jatorria: interesduna edo beraren legezko ordezkaria.

Jasotzeko prozedura: datuen transmisio elektronikoa.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta izaera pertsonaleko datu moten deskripzioa.

– Identifikazio-datuak: helbide elektronikoa.

e) Hirugarren herrialdeentzako datu-lagapenak eta –transferentziak.

Lagapenik gabe.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritza.

g) Datuak eskuratzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko esku-bideak baliatzeko zerbitzua.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila.

Oinarrizkoa.

i) Tratamendu-sistemak:

Partez automatizatua.

2.4 – Arartekoarekiko harremanak.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Arartekoaren aurrean pertsonak aurkeztutako kexak eta horiei loturiko espedienteak kudeatzea, izapidetzea eta jarraitzea, baita ofizioz hasitako espedienteak ere; eta estatistika-erabilerak.

b) Datuen iturri diren pertsonak edo kolektiboak.

Interesduna edo beraren legezko ordezkaria.

Interesduna edo interesdunaren ordezkaria ez den bestelako pertsona fisikoa.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura.

– Jatorria:

Interesduna edo beraren legezko ordezkaria.

Interesduna edo interesdunaren ordezkaria ez den bestelako pertsona fisikoa.

Jendearen irispidean dauden iturriak.

Lanbide-taldeetako pertsonen zerrendak.

Egunkari eta aldizkari ofizialak.

Hedabideak.

– Datuak biltzeko prozedura: aitorpenak edo inprimakiak, datuen transmisio elektronikoa edo jasotzeko beste prozedura batzuk.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta izaera pertsonaleko datu moten deskripzioa.

– Identifikazio-datuak: izena eta abizenak, helbidea, telefono-zenbakia eta NAN/IFZ.

– Ezaugarri pertsonalen datuak.

- Gizarte-egoeraren datuak.
  - Enpleguari eta administrazio-karrerari buruzko xehetasunak.
  - Datu ekonomiko-finantzarioak.
  - Arau-hausteei buruzko datuak.
  - Bereziki babestutako beste datu batzuk.
- e) Hirugarren herrialdeentzako datu-lagapenak eta –transferentziak.

Lagapenik gabe.

- f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritza.

g) Datuak eskuratzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko esku-bideak baliatzeko zerbitzua.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

- h) Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila.

Goi-maila.

- i) Tratamendu-sistemak:

Partez automatizatua.

3.– Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza.

3.1.– Fundazioen Erregistro Nagusia.

- a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Fundazioen eta patronatuetako kideen erregistroa, eta estatistika-erabilerak.

- b) Datuen iturri diren pertsonak edo kolektiboak.

Patronatuen kideak eta sortzaileak. Harremanetarako pertsonak.

- c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura.

Jatorria: interesduna edo beraren legezko ordezkaria.

Jasotzeko prozedura: elkarrizketak, Internet, beste batzuk (bisita-txartelak, eskutitzak).

- d) Fitxategiaren oinarritzako egitura eta izaera pertsonaleko datu moten deskripzioa.

– Identifikazio-datuak (ID): izena eta abizenak, helbidea, telefono-zenbakia.

– Enpleguari buruzko xehetasunak (EX).

e) Hirugarren herrialdeentzako datu-lagapenak eta –transferentziak.

Ez dira antzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza.

g) Datuak eskuratzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko esku-bideak baliatzeko zerbitzua.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila.

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila.

Oinarrizkoa.

i) Tratamendu-sistemak:

Partez automatizatua.

3.2.– Elkarteen Erregistro Orokorra.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Elkarteetako eta zuzendaritza-batzordeetako kideen erregistroa, eta estatistika-erabilerak.

b) Datuen iturri diren pertsonak edo kolektiboak.

Elkarteen eta zuzendaritza-batzordearen kideak eta bazkide eratzailleak. Harremanetarako pertsonak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura.

Jatorria: interesduna edo beraren legezko ordezkaria.

Biltzeko prozedura: adierazpenak edo inprimakiak.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta izaera pertsonaleko datu moten deskripzioa.

– Identifikazio-datuak (ID): izena eta abizenak, helbidea, telefono-zenbakia.

– Enpleguari buruzko xehetasunak (EX).

e) Hirugarren herrialdeentzako datu-lagapenak eta –transferentziak.

Ez dira antzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza.

g) Datuak eskuratzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko esku-bideak baliatzeko zerbitzua.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila.

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila.

Oinarrizkoa.

i) Tratamendu-sistemak:

Partez automatizatua.

3.3.– Estatu osorako gaikuntza duten EAeko funtzionarioen erregistro bateratua.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Egindako izendapenak, administrazio-egoerak, kargu-hartzeak, kargu-uzteak, eta estatu osorako gaikuntza izanik EAeko lurralde-esparruan lan egiten duten funtzionarioen karrera profesionalari eragiten dioten bestelako intzidentziak, estatistika-erabilerekin batera.

b) Datuen iturri diren pertsonak edo kolektiboak.

Estatu osorako gaikuntza duten funtzionarioak, Enplegatu Publikoaren apirilaren 12ko 7/2007 Legeko bigarren xedapen gehigarriak ezarritakoarekin bat etorrira.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura.

Jatorria: interesduna bera.

Biltzeko prozedura: inprimakiak.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta izaera pertsonaleko datu moten deskripzioa.

– Identifikazio-datuak (ID): izen-abizenak, helbidea (postakoa, elektronikoa), telefono-zenbakia eta NAN/IFZ.

– Ikasketa- eta lanbide-datuak (IL).

– Enpleguari buruzko xehetasunak (EX).

e) Hirugarren herrialdeentzako datu-lagapenak eta –transferentziak.

Ez dira antzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza.

g) Datuak eskuratzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko esku-bideak baliatzeko zerbitzua.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila.

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila.

Oinarrizkoa.

i) Tratamendu-sistemak:

Partez automatizatua.

4.– Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza.

4.1.– Sarrera/irteera-erregistroen liburua.

a) Fitxategiaren helburua.

Erregistro Orokor Nagusiaren eta haren erregistro laguntzaileetako erregistro-bulegoetako dokumentuen sarrera eta irteerak erregistratzea. Estatistika-erabilerak.

b) Datuen iturri izan daitezkeen pertsonak edo kolektiboak.

Eusko Jaurlaritzako dokumentuen sarrerak egin nahi dituzten pertsonak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura.

Interesduna edo beraren legezko ordezkaria.

Administrazio publikoak.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta izaera pertsonaleko datu moten deskripzioa.

– Identifikazio-datuak (ID): izen-abizenak, helbidea eta NAN/IFZ.

– Enpleguari buruzko xehetasunak (EX).

e) Datuen lagapenak eta komunikazioak.

Ez dira antzeman.

f) Organo arduraduna.

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza.

g) Datuak eskuratzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko eta datuen aurka egiteko esku-bideak baliatzeko zerbitzua.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila.

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Fitxategiaren segurtasun-maila.

Oinarrizkoa.

i) Tratamendu-sistemak:

Partez automatizatua.

4.2.– Zuzenean–Herritarrei Arreta emateko Zerbitzuaren hobekuntza.

a) Fitxategiaren helburua.

Herritarrei arreta emateko zerbitzua etengabe hobetzeko azterketak, inkestak eta bestelako analisiak egitea, estatistika-erabilerekin batera.

b) Datuen iturri izan daitezkeen pertsonak edo kolektiboak.

Herritarrei Arreta Emateko Zerbitzuarekin harremana duten pertsonak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura.

Herritarrei Arreta Emateko Zerbitzuarekin harremanak dituztenak, aurrez aurre, telefono bidez edo modu diferituan (Internet, posta-kutxaz, elektronikoki...).

d) Fitxategiaren oinarriko egitura eta izaera pertsonaleko datu moten deskripzioa.

– Identifikazio-datuak (ID): izen-abizenak, telefonoa eta helbide elektronikoa.

– Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak (EP).

e) Datuen lagapenak eta komunikazioak.

Ez dira aurreikusten.

f) Organo arduraduna.

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza.

g) Datuak eskuratzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko eta datuen aurka egiteko esku-bideak baliatzeko zerbitzua.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila.

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Fitxategiaren segurtasun-maila.

Oinarrizkoa.

i) Tratamendu-sistemak:

Partez automatizatua.

4.3.– Ordezkarien fitxategi elektronikoa.

a) Fitxategiaren helburua.

Bitarteko elektronikoak erabiliz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin jarduteko emandako ahalordeei buruzko datuen kudeaketa eta kontrola, eta estatistika-erabilerak.

b) Datuen iturri izan daitezkeen pertsonak edo kolektiboak:

Ahalorde-emaileak eta ahalordedunak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin jarduketak bitarteko elektronikoen bidez egiten dituztenak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Interesduna, ahalordeen inskripzio-eskaerako inprimakien eta uko egiteko edo baliogabetzeko inprimakien bidez.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta izaera pertsonaleko datu moten deskripzioa.

– Identifikazio-datuak: izena eta abizenak eta IFZ.

e) Datuen lagapenak eta komunikazioak:

Ez dira antzeman.

f) Organo arduraduna.

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza.

g) Datuak eskuratzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko eta datuen aurka egiteko esku-bideak baliatzeko zerbitzua.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila.

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Fitxategiaren segurtasun-maila:

Oinarritzkoa.

i) Tratamendu-sistemak:

Partez automatizatua.

4.4.– Herritarrekiko interakzioa.

a) Fitxategiaren helburua:

Baliatzea Informazio orokorraren, kexen, iradokizunen eta esker onen postontzia, baita informazio publikorako irispide-eskubidea ere, zeina Gardentasunari, informazio publikorako irispideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legean erregulatzen baita; eta estatistika-erabilerak.

b) Datuen iturri izan daitezkeen pertsonak edo kolektiboak:

Pertsona fisikoak eta pertsona juridikoak, publikoak zein pribatuak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Informazio publikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta haren sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeek sortutakoa.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta izaera pertsonaleko datu moten deskripzioa.

Identifikazio-datuak (ID): izen-abizenak, helbidea (postakoa, elektronikoa), telefono-zenbakia eta IFZ/NAN.

e) Datuen lagapenak eta komunikazioak:



Beren interes eta eskubideak ukitzen zaizkien hirugarrenei.

Beste kontrol-organo batzuei: Arartekoa eta Eusko Legebiltzarra.

f) Organo arduraduna.

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza.

g) Datuak eskuratzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak baliatzeko zerbitzua.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila.

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Fitxategiaren segurtasun-maila:

Oinarrizkoa.

i) Tratamendu-sistemak:

Partez automatizatua.

4.5.– Sariak eta laguntzak.

a) Fitxategiaren helburua:

Deialdietako parte-hartzaileen identifikazioa, oinarrietan jasotako ondorioetarako; eta estatistika-erabilerak.

b) Datuen iturri izan daitezkeen pertsonak:

Pertsona fisikoak eta pertsona juridikoak, publikoak zein pribatuak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

– Jatorria: interesdunek emandako datuak.

– Biltzeko prozedura: lineako inprimakiak.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta izaera pertsonaleko datu moten deskripzioa.

Identifikazio-datuak (ID): izen-abizenak, IFZ/NAN, telefono-zenbakia eta helbidea (postakoa, elektronikoa).

e) Datuen lagapenak eta komunikazioak:

Ez da aurreikusi.

f) Organo arduraduna:

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza.

g) Datuak eskuratzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak baliatzeko zerbitzua:

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila.

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Fitxategiaren segurtasun-maila.

Oinarrizkoa.

i) Tratamendu-sistemak:

Partez automatizatua.

5.– Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza.

5.1.– Araubide Juridikoko Liburutegiaren Kudeaketa.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Liburutegiko maileguen kontrola eta kudeaketa, liburu irakurrien estatistiken ustiapena, maileguan utzitako liburu bat zenbat denboratan gordetzen den, batz beste, eta abar.

b) Datuen iturri diren pertsonak edo kolektiboak.

Euskal Autonomia Erkidegoaren zerbitzuko langileak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura.

Jatorria: interesduna bera.

Biltzeko prozedura: inprimakiak.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta izaera pertsonaleko datu moten deskripzioa.

– Identifikazio-datuak (ID): izena eta abizenak, helbidea, telefono-zenbakia eta NAN/IFZ.

– Enpleguari buruzko xehetasunak (EX).

Beste batzuk: Administrazioarekiko lotura (funtzionarioak, kanpo- kontratazio bidezkoa, beka-duna, aldi baterako kontratatua).

e) Hirugarren herrialdeentzako datu-lagapenak eta –transferentziak.

Ez dira antzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza.

g) Datuak eskuratzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko esku-bideak baliatzeko zerbitzua.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila.

Araubide Juridikoaren Sailburuordetza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila.

Oinarrizkoa.

i) Tratamendu-sistemak:

Partez automatizatua.

5.2.– Jardunaren eta txostenak egitearen kudeaketa.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Legezkotasun-txostenak eta legezko iritziak esleitzearen eta egitearen kontrola eta kudeaketa. Txostenen erregistro historikoa. Erabilera estatistikoak.

b) Datuen iturri diren pertsonak edo kolektiboak:

Araubide Juridikoaren Sailburuordetzari atxikitako langileak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: interesdunak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak sortutako informazio publikoa.

Biltzeko prozedura: barnean jasotako datuak eta aplikazioetatik, tramitazio-tresnetatik («Tramitagune») eta beste kudeaketa-tresnetatik zuzenean jasotzeko informazioa.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta izaera pertsonaleko datu moten deskripzioa:

– Identifikazio-datuak (ID): izen-abizenak, helbidea, telefono-zenbakia eta NAN/IFZ.

– Ikasketa- eta lanbide-datuak (IL).

– Enpleguari buruzko xehetasunak (EX).

e) Hirugarren herrialdeentzako datu-lagapenak eta –transferentziak:

Ez dira antzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza.

g) Datuak eskuratzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko esku-bideak baliatzeko zerbitzua.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila.

Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz (Araba).

h) Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila.

Oinarrizkoa.

i) Tratamendu-sistemak:

Partzialki automatizatua.

5.3.– Euskal Zuzenbide Zibileko Batzordearen lanen kudeaketa.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Batzordeak betetzen dituen funtzioen eta egiten dituen lanen kudeaketa administratiboa, koordinazioa eta kontrola.

b) Datuen iturri diren pertsonak edo kolektiboak:

Batzordeko kideak eta ordezkioak.

Batzordeari atxikitako laguntzaileak.

Batzorde Teknikoko kideak eta Saileko administrazio-langileak.

Parte har dezaketean edo parte hartzeko deialdia egin ahal izango zaien adituak edo gizarte zibileko ordezkariak.

Beste pertsona fisikoak eta/edo juridikoak, Batzordeak horiekin lankidetzan aritu behar bada.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: interesduna bera eta izendatu duten erakundeak edo organoak.

Biltzeko prozedura: inprimakiak edo datuak jasotzeko beste tresnak, interesdunek beraiek egindako transmisio elektronikoa barne.

d) Fitxategiaren oinarritzako egitura eta izaera pertsonaleko datu moten deskripzioa:

– Identifikazio-datuak (ID): izen-abizenak, helbidea, telefono-zenbakia eta NAN/IFZ.

– Ikasketa- eta lanbide-datuak (IL).

– Beste batzuk: bileretan parte hartzea, aurkeztutako mozioak, agindutako eta egindako zereginen kudeaketa eta historikoa...

– Enkargua edo proiektuaren garapenari buruzko agiriak, eta haiek amaitu arte gerta daitezkeen gorabeherak.

– Amaitutako ikerketak eta enkarguak.

e) Hirugarren herrialdeentzako datu-lagapenak eta –transferentziak:

Eusko Legebiltzarrari, betiere bat eginez urriaren 4ko 140/2016 Dekretuaren bidez onartutako Batzordearen Estatutuaren 7.j) artikulua Batzordearen jardueraren gaineko urteroko txostena egiteari buruz ezartzen duenarekin.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza.

g) Datuak eskuratzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko esku-bideak baliatzeko zerbitzua:

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila.

Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz (Araba).

h) Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila:

Oinarrizkoa.

i) Tratamendu-sistemak:

Partez automatizatua.

5.4.– Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen Erregistro-liburua, Artxiboa eta funts dokumentala eta bibliografikoaren kudeaketa.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

- Batzordearen funts dokumentala eta bibliografikoaren kontrola eta kudeaketa.
- Batzordeari bidalitako agirien sarrerak eta hark bidalitakoen irteerak erregistratzea.
- Liburutegietako maileguren kontrola eta kudeaketa.
- Ustiatze estatistikoak, adibidez, gehien irakurritako liburuak, liburuen eta dokumentuen maileguren batez besteko iraupena, e.a.

b) Datuen iturri diren pertsonak edo kolektiboak:

Euskal Autonomia Erkidegoko langileak.

Batzordeari dokumentazioa bidali nahi dioten pertsonak.

Batzordeak paperez edo telematikoki bidaltzen duen dokumentazioaren hartzaileak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: interesduna bera.

Biltzeko prozedura: inprimakiak.

Aurkeztutako dokumentazioa, bai paperean bai telematikoki.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta izaera pertsonaleko datu moten deskripzioa:

- Identifikazio-datuak (ID): izen-abizenak, helbidea, telefono-zenbakia eta NAN/IFZ.
- Enpleguari buruzko xehetasunak (EX).
- Beste batzuk: interesdunek eta mailegu-hartzaileek Administrazioarekin duten lotura (funtzionarioak, kanpoko enpresa kontratista, bekadunak edo aldi baterako langileak).

e) Hirugarren herrialdeentzako datu-lagapenak eta –transferentziak:

Eusko Legebiltzarrari, betiere bat eginez urriaren 4ko 140/2016 Dekretuaren bidez onartutako Batzordearen Estatutuaren 7.j) artikulua Batzordearen jardueraren gaineko urteroko txostena egiteari buruz ezartzen duenarekin.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza.

g) Datuak eskuratzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko esku-bideak baliatzeko zerbitzua:

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila.

Araubide Juridikoaren Sailburuordetza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz (Araba).

h) Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila:

Oinarrizkoa.

i) Tratamendu-sistemak:

Partez automatizatua.

6.– Auzibide Zuzendaritza.

6.1.– Prozedura judizialak.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta Instituzionala epaiketan ordezkatu eta defenditzearen ondorioz sorturiko prozedura judizialen espedienteak ordenatzea eta kontrolatzea, eta estatistika-erabilerak.

b) Datuen iturri diren pertsonak edo kolektiboak.

Euskal Autonomia Erkidegoa parte den prozeduretako demandatzaileak eta demandatuak, edo beste pertsona edo instituzioak, pertsona edo instituzio horien epaiketarako ordezkotza eta aldezipena Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari dagozkionean, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren arabera.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura.

Jatorria: administrazio publikoak edo, hala badagokio, interesdunak.

Datu-bilketaren jatorria: jurisdikzio-organoaren komunikazioa edo paperezko euskarrian edo aplikazio informatikoaren bitartez.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta izaera pertsonaleko datu moten deskripzioa.

– Identifikazio-datuak (ID): NAN edo IFZ, izen-abizenak, helbidea.

– Transakzioei buruzko datuak (TR).

– Arau-hausteei buruzko datuak (AH).

e) Hirugarren herrialdeentzako datu-lagapenak eta -transferentziak:

Funtzio berak betetzeko bereziki gaituriko hirugarren profesionalak, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuak ezarritakoarekin bat etorrira.

Epaitegi eta auzitegiei, Fiskaltzari, Arartekoari, Herriaren Defendatzaileari eta Eusko Legebiltzarrari.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Auzibide Zuzendaritza.

g) Datuak eskuratzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko esku-bideak baliatzeko zerbitzua.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila.

Auzibide Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila.

Goi-maila.

i) Tratamendu-sistemak:

Partez automatizatua.

6.2.– Epaiketetan Ordezkatzeko eta Defendatzeko Gomendioen Erregistro Ofiziala.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Epaiketetan ordezkatzeko eta defendatzeko gomendioak formalizatzen dituzten kontratu publikoen informazioa argitaratzea.

b) Datuen iturri diren pertsonak edo kolektiboak.

Epaiketetan ordezkatzeko eta defendatzeko gomendioak jasotzen dituzten profesionalak eta helburu horrekin Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrekin edo haren Administrazio Instituzionalaren parte diren erakundeekin kontratatzen dituztenak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura.

Jatorria: administrazio publikoak.

Biltzeko prozedura: transmisio elektronikoa.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta izaera pertsonaleko datu moten deskripzioa.

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, helbidea, telefono-zenbakia eta NAN/IFZ.

Esleitutako kontratuen oinarritzko datuak.

e) Hirugarren herrialdeentzako datu-lagapenak eta –transferentziak:

